

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 2013an baino % 23,8 gehiago inbertituko du aurten Urbasa-Andia parke naturalean

380.501 euro izango dira, iazko 307.356 euroen aldean

Jueves, 31 de julio de 2014

Nafarroako Gobernuak % 23,8 handitu du Urbasa-Andia parte naturalean inbertituko duen zenbatekoa 2013rekin alderatuta. Guztira 380.501 euroko inbertsioa egingo da, iazko 307.356 euroko inbertsioaren aldean.

Halaxe azaldu zuten asteazken arratsaldean Bioitza-Urbasa kanpenean izan zen parkearen patronatuaren urteroko bileran. José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria izan zen bilerako burua.

2013an egindako eta 2014rako aurreikusitako jarduerak aztertu ziren bileran, parkearen erabilerekin erlazioatutakoak: abeltzaintza, basogintza eta turismoa, baita Natura 2000 Sarearen barruan parkea zaintzeko jarduerak ere.

Abeltzaintzarena da baliabide gehien hartzen dituen erabilera. Zehazki, 2013an, bideko parrila bat jartzeko, urmaeletan lanak egiteko eta urguneak hobetzeko, eta saneamendu-tratamenduak egiteko izan ziren 2013 hobekuntzen eta jardueren bi herenak. Aurten ere jarduera horiek egingo dira.

Arboladien basogintzako kudeaketari dagokionez, aurten, itxura guztien arabera, % 15 inguru handituko dira Urbasako egurraren eta su-egurraren aprobetxamenduak, horrek mendiaren iraunkortasunari kalterik egin gabe. Gainera, mendi-bideak eta landaredi gutxiko guneak hobetzen eta barrutietako itxiturak gainbegiratzen ari dira.

Basogintzako erabilerearen barruan, berriki esleitu da Urbasa antolatzeako proiektuaren 5. berrikusketa. Horren bidez, parkearen basogintzako kudeaketa iraunkorra bermatuko da datozen hamar urteetan. Lanak aurtengo urtean eta hurrengoan, 2015ean, egingo dira. Zehazki, 55.856 euro euro inbertitu dira horretan 2014an.

Parkearen erabilera turistikoari dagokionez, Urederra ibaiaren iturburuko natura-erreserbarako sarbidea arautzea izan da aurtengo



Esparza kontseilaria eta patronatuko beste kide batzuk, bilerako une batean

berritasun nagusia. Hala, 450 pertsona egon ahal izango dira bertan aldi berean. Horri lotuta, esan beharra dago 2013an 103.271 bisitari egon zirela bertan, eta, aurreko urtean, 73.806. Hori dela-eta, beharrezkoa izan zen sarbidea arautzea.

Azkenik, Natura 2000 Sareko parkea zaintzeko neurriei dagokienez, aurten, Andiako pagoak kimatzen, Andiako anfibioentzako urmaelak inguruko buztin naturalekin eta bigarren mailako espezieak landatuta iragazgaizten, eta ugatzen, miru gorrien, sai zurien, bertako karramarroen eta inguruan dauden intereseko beste espezie batzuen jarraipena egiten ari dira.

Parkearen patronatuko kideak

Honako tokiko erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute Urbasa-Andia parke naturalaren patronatua: Abartzuza, Altsasua, Amekoabarren, Aranaratxe, Arbizu, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Ergoiena, Eulate, Irañeta, Iturmendi, Larraona, Lezaun, Olazti, Uharte-Arakil, Urdiain, Deierri eta Ziordia herrietako eta Arakil, Goñi, Gesalatz Ollaran arantako udalak.

Horiez gain, Jurramendi eta Sakanako mankomunitateak, Urbasa eta Andiako eta Limitaciones mendiko Larre Batzordeak, Arañatz elkarteak, UAGN eta EHNEk, Aranaratxe eta Etxarri Aranatzko ehiztarien elkarteak, Ekologistak Martxan eta Gurelur erakundeak, TEDERek, Estellerriko Turismo Partzuergoak eta Cederna-Garalur sozietateak ere osatzen dute.

Nafarroako Gobernuko ordezkarien aldetik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria, Uraren eta Ingurumenaren zuzendari nagusia eta Mendi; Abeltzaintza; Biodibertsitatea eta Antolamendua, eta Produktu Turistikoen Garapena zerbitzuetako buruak daude partzuergoan.